

PRENTSA

1. KREDITAZIOAK

Komunikabide gisa kreditatzeko eta entzierroko hesian -argazkiak ateratzeko- edo bestelako ekitaldi ofizialetan sarbidea izateko, aste batzuk lehenago, Iruñeko Udalarekin harremanetan jarri behar izaten da, berak antolatzen baititu jaiak eta bera arduratzen baita prentsarendako kreditazioak kudeatzeaz.

Harremana: s.prensa@pamplona.es

2-.Material Grafikoa

Sanfermin.com-ek dohainik eskaintzen dizkizu zenbait argazki zeure hedabidean erabil ditzazun. Eskatzen dizugun kondizio bakarra zera da, egilearen eta gure web orriaren izenak izan ditzatela eta argazki horiek agertzen diren argitalpenaren ale bat bidal diezaguzula. Bete ezazu galdetegi erraz hau, aukeratu nahi dituzun argazkiak eta arin-arin bidaliko dizkizugu adierazten diguzun [helbide elektronikora](#).

Kondizioak

-Gogoan izan nahitaezkoa dela argitalpenean argazkien jatorria aipatzea.

-Bidali argazkiak agertzen diren argitalpenaren ale bat hona:

Kukuxumusu
Komunikazio Saila
Martzelo Zelaieta etorb. 75 - N.AA1
31014 Iruñea/Pamplona
Spain

2. HAMAR AHOLKU

1. Hizkuntza. Kanpotarra bazara komeni zaizu gaztelaniazko hasi-masi batzuk jakitea. Gure hirian jende guztiak ez du ingelesez egiten eta mesede eginen dizu euskaraz jakiteak eta jaien inguruan zer esana duten gehientsuenek mintzatzen dituzten hizkuntzak erabiltzeak.

2. Parranda. Kasu jaiak irents ez zaitzan. Sanferminek arrastatzen ahal zaituzte eta, ohartzerako, jaiak bukatuak daude eta ezin hobeki pasatu izan duzu, baina ez duzu izaneren zer argitaraturik. Lana eta parranda bateragarri egin daitezke baina beren neurrian.

3. Erne esaten dizutenarekin. Sanferminetako alderdi bakoitzak iritzi ugari sorrarazten ditu eta oso ezberdinak, batzuetan. Erne esaten dizutenarekin, kazetari ona baitzara, iturri ezberdinak bila itzazu berri bat ontzat edo iritzi bat orokortzat eman aurretik. Iruñean ia ezeren inguruan ados ez egoteko ohitura dugu.

4. Txantxak. Sanferminetan ia jende guztiak jai izaten du eta, batzuetan, kanpotarrei txantxak egitea edo ziriak sartzea izugarri gustuko izaten du. Kasu! Zalantzarik izanez gero, historia ontzat eman aurretik fidagarri antza ematen duen norbaitekin kontsultatu.

5. Mitoak. Utzi alde batera aurreiritziak eta aurrez bururatuak. Sanferminetan lehenengo aldia baduzu, hobe duzu aurretiazko edozein ideia ahaztea. Hor barna ibiltzen diren mitoak ez dira egiazkoak izaten. Bi adibide: entzierroan zezenei ez zaie erasotzen eta kalean inork ez dezake nahi duena egin, ordena eta agintea mantentzen dira.

6. Asmoak. Sanferminak ez dira habitatik egokiena kazetari estu eta ordenatu batentzat. Zaila da norbaitekin elkartzea izan eta hura esandako orduan agertzea, zaila da lekuetara iristea eta zaila da nolabaiteko asmoak izan eta hauek betetzea. Jende asko izaten da, buila handia eta zailtasun ugari dena behar bezala ateratzeko. Ez larritu horregatik.

7. Arriskua. Kontuz non sartzen zaren. Txupinazora edo goizeko 3retan Jarauta karrikara bideo kamera bat hartuta sartzea arrisku larriko operazioa izan daiteke. Gaiak erakarri bazaitu eta irudi zirraragarrik lortu nahi baduzu, egizu, baina beti ere jakinik zer egiten duzun eta, batez ere, babestu zeure kamera. Honi eta zeuri denetik eroriko zaizue gainera.

8. Aurretik eta ondoren. Astirik baldin baduzu eta ahal izanez gero, ez legoke batere gaizki jaiak hasi baino egun pare bat lehenago etortzea, hiriaren eraldaketa egiaztatu ahal izateko. Ez izutu, hilaren 5ean lur hartu eta hiri honetan bakanal izugarri baten aurrean zaudela adierazten duen inolako zantzurik aurkitzen ez baduzu, 6an goizean hasten baita dena.

9. Jantzera. Jantzkerak garrantzia badu. Ez dizugu esanen jantzi tipikoa janzteko baina "giri" despistatua eman nahi ez baduzu, hobe duzu zapi gorria bederen lepoan janztea.

10. Informazioa. Ez saiatu guztia kontrolpean izaten, eta gutxiago entzierroaren ingurukoak. Nafarroako Gobernuak (www.navarra.es) zaurituen parte eskaintzen du egunero. Beste berri batzuk ere ematen ditu festen martxa azalduz eta amaieran balantzea egiten du, nola atera den guztia azalduz. Gainera, edonoiz jo dezakezu Sanfermin.com-era eta informazio bikaina eskuratu.

4. SANFERMINETAKO LABURPENA

Sanferminetan hamaika historia izaten da eta hainbeste izanik zaila izaten da batzuetan, bost minutuko erreportajeetan edo lau zutabetan aukera egitea eta laburtzea, zer diren eta zer adierazten duten festa hauek. Hoberena zeuk erabaki eta aukeratzea duzu, baina hainbat pista emanen dizkizugu Sanferminetako laburpen oso batean, nahitaez agertu beharrekoak.

-[Entzierroak](#). Festetako ekitaldirik garrantzitsuena eta ezagunena da. Sanferminen inguruko edozein informazio honexek ireki behar du. Irudiak aski zirraragarriak dira, ez dute azalpen handiren beharrik.

-[Txupinazoa](#). Jaiak direnaren eszenaratze argiena dira. Ikus-entzunezko hedabideetan ezinbestekoak dira Sanferminen hasierako irudiak. Une jakin batean (goizeko 12etan) bildutako poz eta zalaparta ezta bakarra egiten dute memento hori.

-[Parranda](#). Garrantzitsua da irakurle, entzule edo teleikuslearenganaino Sanferminetako gau eta eguneko parranda giroa helaraztea. Festak, batez ere, dibertsio bide dira eta hori kaleetan noiznahi nabaritzen da.

-[Hiria](#). Sanferminak eta Iruñea modu bereizi ezinean lotuak daude. Iruñea, hiri txiki samarra, atsegina, eta festetan eraldatzen dena. Izugarria da hiriko biztanleria Sanferminetako 9 egunetan hirukoiztu -laukoiztu edo auskalo zenbakoiztu- egiten dela jakitea.

[-Giria](#). Bai kanpotik etorria, bai inguruetakoa bazara, giriaren figurak ohorezko tokia behar du Sanferminetako edozein laburpenetan. Batzuek gorrotatua eta besteek maitatua, zalantzarik gabekoa da atzerritarrak -giriak- eragin handia izan duela, egun Sanferminak diren horretan.

5. IRADOKIZUNAK

Sanferminetan, entzierroari buruzko ohiko erreportaiez gain, astirik edo lekurik izanez gero behintzat, badira gai zehatzagoak, interesgarriak izan daitezkeenak zure arreta jartzeko eta argazkiak atera edo irudiak hartzeko. Baten batzuk eskainiko dizkizugu.

[-Txupinazoa](#). Entzierroarekin batera ikusmin handiena sortzen duen ekitaldia da. Jaiei hasiera ematen die (hilaren 6an, 12:00etan, Udal Plazan). Lasai ikusteko eta argazkiak ateratzeko lekurik hoberena plazako balkoietako bat izaten da baina ez da erraza izaten baten bat lortzea.

[-Zezenketak](#). Kreditazioa beharko duzu plazan sartzeko. Egunero izaten dira, arratsaldez.

[-Prozesioa](#). San Fermin Santua Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan barna eramaten dute eta jotak abesten dizkiote. Hilaren 7an izaten da, goizeko 10:00etan. Oso estetikoa da eta beste ekitaldi batzuek ez bezala, oso garbia.

[-Lo egitea](#). Milaka lagunek kalean egiten dute lo gauero -hobeki esanda goizero-. Erreportaje on baterako adina ematen du. Jendeak lekurik ezustekoenetan egiten du lo eta edozein toki izan daiteke ona informazioa lortu eta kontatzeko, baina jendetsuena Gaztelugibela izaten da.

[-Iturring](#). Txupinazoaren ondotik giri batzuek iturri baten gainetik jauzi egiten dute, behekoek hartuko dituztelakoan lurraren kontra burua hautsi gabe. Nabarrerian egiten dute. Babestu kamera, denetik erortzen da.

6. HELBIDE ETA TELEFONO INTERESGARRIAK

Nazioarteko Prentsa Bulegoa oip@prensapamplona.com
6tik 14ra: Hilarion Eslaba k., 1 (San Frantzisko Plaza). (+34) 948 20 31 44 /
948 20 31 45 / 948 20 61 11 / 948 20 61 98
Gainerakoan: Antsoleaga k. 12, 1.A. (+34) 948 22 40 79.

Helbide eta telefono interesgarri gehiago: [Datu praktikoak](#)